

Berrikuntza kurrikularra eta helduen irakaskuntza: kultura eta eduki tematikoa curriculumean

Geneviève Zarate

Hizkuntzen irakaskuntzan kulturak duen garrantzia begien bistakoa da. Xede-hizkuntzaren hitzunen uste, balore, jarrera, aztura eta portaera komunak, besteak beste, aintzat hartzekoak dira ez bairik gabe curriculumen diseinuan. Eta, xede-hizkuntzaren hitzunen kultura ez ezik hizkuntz ikasleena ere zertan ahazterik ez dago.

Hizkuntz eta kultur politika Europar

Hizkuntzen didaktikako ikerketagintza aldatu egin du gertaera nagusi batek, eta, berrikuntza guztiak bezala, oharkabean pasatzeko arriskuan dago merezi duen arretarik ematen ez bazaio. XIX. mendeaz geroztik, hizkuntzak hedatzea Estatuaren politikako ekintza garrantzi handiko bat da. Eta orain, lehenengo aldiz, nazioarteko arlo garrantzitsu legez hartu dute espreski eta ez, ohiturak eskatzen zuen bezala, alde bakarreko erabaki edo bi herrialderen arteko hitzarmen legez. Maastricht-eko hitzarmenak argi eta garbi ikusten ditu, bere 126. atalean, nortasun europarra eraikitzea eta Europako Estatu kideetako hizkuntzak ikasi eta hedatzea elkarrekin lotuta daudela. Bestalde, ikasle-irakasleen higikortasuna, ikastegien arteko elkarlana, gazte eta animatzaile sozio-hezitzaileen elkartrukeen garapena, urrutiko irakaskuntza, horiek ere deblauki ezarri diren helburuak dira.

Didaktikaren aldetik, atera genitzake hainbat ondorio Europar hizkuntzen ikaskuntzari buruz hartu den jarrera berri horretatik. Hizkuntza biziak, hezkuntza-sisteman sartutakoak barne, lehen ez zituzten helburu jakin batzuei erantzun beharko diete. Higikortasun geografikoaren kariaz, ekonomiaaren haritik sortzen ari den nortasun berri, nazioarteko baten eraikitzean parte dira hizkuntzak. Hizkuntza bat erabiltzea hizkuntza horrekin harreman bat bizitzeko prest egotea da bi eskakizunek, politikak eta behar ekonomikoak hori eskatzen dutelako. Europako hezkuntza-sistemek poliki-poliki bere egin beharko dute "hizkuntza biziaren" definizio berri bat eta hizkuntza horiek beren nortasun diziplinarra malgutu eta berezitu egin beharko dute nortasun-proiektu multinazional baten aldera.

Orain arte didaktikari buruzko gogoetan erabili ohi diren kontzeptuak ez dira aski aldaketa horri heltzeko. Esate baterako, lexikulturaren, konparazioaren nozioak, orain arte metodologian onarpen zabala izanik, irakaskuntzako tresneria eta curriculumak egituratzeko eraginkorrak zirenak eta hizkuntz sistema batetik besterako igarobide delikatuak analizatzeko balio zutenak ez dira jada behar bezain operazionalak. Gaur egun arreta handiagoa eskatzen du ikusteak nolako katramilen aurrean aurkitzen den atzerritar bat bera arrotz jotzen duen komunitate bateko bizimoduari aurre egin behar dionean. Komunikazioaren nozioa horren haritik egiten baitzen berrikuntza metodologikoa, hizkuntza bat irakastea berau egoera jakin batzuetan nola erabiltzen den deskribatzea zenean, murriztuz geratzen da gaur egun alteritatezko harremanen bizikizunen eta horiekin lotuta dauden identitate-arazoen aurrean. Orain arte erabilitako nozioen atzean, hizkuntzan oztupoak aurkitzen dituen ikasle baten irudia daukagu; ikaskuntza sistematikoak puntuz puntu kenduko dizkio oztupo horiek hala uste izan da, ama-hizkuntzaren eta xede-hizkuntzaren konparazioen bidetik, eta hizkuntzak bata besteari gehituz ikasi ahal izango ditu: lehenbizi hizkuntza bat, gero bestea.

Europako identitate-ereduak zalantzan jartzen ditu oinarri horiek guztiak. Bereziki, mugarteko higikortasuna ikusten eta hiritartasun europarra aintzat hartzen badira, pentsatzekoa da alteritatezko harremanek garrantzi handiko elementu izan beharko dutela hizkuntzen ikas-irakaskuntzan datorren hamarkadan. Alteritatezko harremanak honako hau esan nahi du:

- Kultur sistema desberdinak elkarrekin harremanetan jartzearen ondorioz nortasun-kuestionamenduak datozela.
- Ikasleak, bera sozializatua izan ez den kultur sistema baten barneko aldaera sozial bereziak interpretatzeko eragozpenak izango dituela.
- Arrotzaren irudiak sortzen dituen disfuntzioak eta erresistentziak kudeatu beharko direla.

Horiek horrela mugatuta, molda daitezke hainbat printzipio gidatzaileguk, berak hala eskatuta, Europako Kontseiluari aurkeztu dizkiogunak eta hizkuntz ikaslearen profila beste era batera marraztera garamatzatena (1) Europako gaurko egoeran, esan daiteke edozein hizkuntz ikaslek heldu diezaiokeela beste hizkuntza batzuen ikaskuntzari; horrek indartu egiten ditu hizkuntza batzuen eta besteen eta guztien arteko trabeskako alderdi komunak. Lehenengo kasuan, esaterako, hizkuntza latinoen aldaera linguistikoak lantzen dira; bigarrenean, gaitasun generikoak, edozein hizkuntza ikastekoak; hori erakusten du, adibidez, hizkuntzara esnatzeak ("language awareness"). Gauzei zabalago helduta, esan daiteke bere lehenengo hizkuntza arrotza ikasten hasten dena ez dela arituko hizkuntza hori bigarren edo hirugarren hizkuntza arrotz gisa ikasten ari denaren baldintza berdinetan. Azken postulatu honek ikaskuntza-mailak, aurrerapenaren nozioa eta, zalantzarik gabe, ebaluazio-moduak berraztertzea eramango gaitu.

Besteari buruzko diskurtsoa arruntak, eguneroko harremanetan sortzen denak eta eskolako ebaluazioen gai ez denak, honako ezaugarri hauek ditu:

besteari buruzko azterketak jeneralean *hainbat analisi-maila* nahasten ditu. *Ekonomiaren ikuspegitik* begi onez begiratuko dio herrialde saltzailak besteari, hau erostun izateko moduan baldin badago.

Alderantziz, atzeritik datozen migratzaileak lehiakide bezala ikusiko ditu lana urri duen herrialdeko biztanleak. *Antropologiaren ikuspegitik*, mende honen hasieraz geroztik onartzen dugu kultura guztiek duintasun zientifiko berbera dutela, baina horrek ez du derrigor esan nahi denak kontzeptu berberen argitan eta jardunbide berdinez aztertzen direnik. *Ikuspegi politikotik*, herrialdeek nork bere garrantzi politiko eta ekonomikoa dute, baina horrek ez die nazioarteko negoziazioetan berdintasunez aritzeko aukerarik ematen. Hiru ikuspuntu horiek pentsaera desberdin eta elkarren kontrakoak gainea daude eraikiak. Diskurtso horiek, askotan egunez eguneko bizitzarekin nahastuta eta lotuta daudenak, argitzerakoan sortzen dira arazo pedagogikoak.

- 1 *Bitariko kategorizazio* gisa funtzionatzen dute (ni/besteak; garbia/zikina); ondorioz, beste guztiarekiko distantzia bat sortzen da, eta horrela sailkapen-printzipio honen oinarrian dauden identitate-erreferentziak urritu egiten dira. Bestela esanda, komunitate orok besteaz ari denean, adostutako espresioak bilatzen ditu, bere identitatea markatuko duten erreferentzia kultural, moral eta ideologikoak zeharbidez ezartzeko. Erreferentzia horiek bereizgarrien alderdi positiboen harikoak izan daitezke (eta horrek esan nahi du erreferentzia horiek dituen taldeak bere buruaren irudikapen ezkorra duela batik bat) edo alderantziz.
- 2 Besteari buruzko diskurtsoak gizabanako bakoitza komunitate jakin batean sozializatzearen ondorio dira eta alde horretatik beti izan daitezke etnozentrikoak. Bestearekiko erlazio etnozentrikoa azaltzen da kultura desberdinak badirela ukatzean “norbera bizi den arauetaz kanpoko guztia kulturaz kanpoko jotzean”, (2) kultura kanpotarrari desgaraiko iriztean (“kultura primitiboa” deituz esaterako), begiz ikusten diren errealitateak balio-judizio bihurtzean. Diferentzien interpretazio etnozentrikoa norberaganatu diren baloreen ondorio da, hots, esplizituki ikasi gabe, oharkabea norberaganatutako baloreen fruitu. Bi alderdi desberdinetatik begira dakioke sozializazio-prozesuari: gizabanako bat txertatuta dagoen kulturako kideen ikuspegitik begiratuta, gizabanako hori talde horretakoa izango da eta, beraz, gizatalde horren koherentzia bermatzen duen gertakari sozial gisa ikusiko dute. Besteekiko zabalik egotea hezkuntzako helburutzat hartzen duenaren ikuspuntutik begiratuta, fenomeno hori eragozpen bat izango da; izan ere, gizatalde arrotzeko baloreak, gizatalde horretan funtzionatzen duten eran atzematea oztopatuko dioten iragazki izango baita.
- 3 Gizabanako bat komunitate baten barruan egotea, hor sozializatua ez bada, ez da aski gizatalde hori ezagutuko duela bermatzeko. Atzerrian egote hutsak ez dakar berez herrialde horren irudikapen baikorrik, leku

batetik bestera aldatzea ez da nahikoa hasierako irudi ezkorrak baikor bihurtzeko. Kultura bati buruz metatzen diren ezagutzak ez dira beti eta ezinbestean han egiten den egonaldi luze ala motzaren iraupenaren araberakoak. Erraz ikusten diren printzipio horiek bestea aurkitzean jeneralean erabili ohi diren mekanismoen balioa (turismo-industriaren oinarritzko printzipioa) erlatibizatzea garamatzate, eta orobat bestea hobeto ulertzeko mekanismoak ere (hirien senidetasunak, eskoletako egonaldiak, etab.). Batera eta bestera ibiltzea ez da, beraz, bestea ezagutzeko eta ondorio etnozentrikoak menderatzeko eragile sistematikoa.

Bereizgarri kulturali buruzko jarrerak lotura estua du identitatea finkatzeko prozesuekin. Pedagogiak ezin trata ditzake, beraz, jarrera horiek errotik atera beharrekoak bailiren. Onartzen baldin badugu hezkuntza-sistema ororen egitekoa dela gizabanakoa dagoen kulturaren sozializatzea, bere aribidearen ardatza bestearenganako irekitasunean jartzen duen hezitzailea kontraesan baten muin-muinean aurkituko da: alde batetik, ikasleari erakutsi behar dio zertan den gizatalde jakin bateko kide eta, beraz, bestea komunitate horren barruan dabilzan iritzi sozialen haritik deskribatu behar du eta, bestetik, ikasleei irakatsi behar die beren gizataldeko baloreetatik urrutiratu eta berak sozializatu diren gizataldekoa ez den beste balore-sistema bat aurkitzen, bestelakoa eta baita kontrakoa ere izan daitekeen sistema.

**Kanpotarrarekiko
irekitasuna
deskribatzeko
ohiko nozio
batzuen erabilera
arriskutsua**

Honako nozio hauek besterekiko harremana beti baikortasunez hartzera eta deskribatu berri dugun alteritate-erlazioak izan ditzakeen arriskuak gutxiestera daramate.

Elkar ulertzearen nozioak bi kulturaren arteko harreman bitarikoa esan nahi du. Prozesu hori jeneralean bi naziotako kide izate aldetik begitانتzen da eta elkarri begiratzeari ematen dio garrantzia. Bestea ulertzen ikasteak norberaren kulturari besteak egiten dion begirada etnozentrikoa ikertzea eskatzen du, pertzepzio molestagarri hori sortzen duten kulturadunei buruzko balio-judizioak oro baztertuz, besteari berak ere adimen-jokaera berdina izan dezala eskatuz. Planteamendu honen oinarria printzipioa bat da: kultura guztiak baliagarriak direla, eta hori deskribapen etnografikoen printzipioekin bat dator, baina ez du aintzat hartzen bi kultura horien arteko harremana ez dela horrenbestez simetrikoa. Ikuspegi geopolitikotik begiratuta, kultura batek izan dezake nazioartean besteak baino indar handiagoa.

Kulturen arteko elkarriketaren nozioa funtsean kulturen artean erlazio baikor batean dago oinarritua; eta kultura horiek, ikuspegi honetan, beren artean harreman gozoa dute *azken buruan*. Hori esatean, kultura izaki abstraktu, global eta anitz gisa atzematen da. Aktoreak, elkarrekin harremanetan dauden kultura bakoitzeko kideak, ikuspegi idealista baten aldeko kontzeptuetan ezkutatzen dira.

Giza eskubideen nozioak alderdi juridikoa eransten dio ikuspegi kontzeptual horri. Horren atzean ideia bat dago: demokrazia indar politiko orekatua dela, pentsamolde eta adierazpen modu guztiak birtualki ber-

dintzen dituen. Nozio hori, historiari begiratzen badiogu, nazioartean erabiltzen dute batik bat mendebaldeko estatuek, beren helburu politiko eta ekonomikoen mesedetan. Berritoki ere hori gizona izaki abstraktu gisa ikustea da eta kultur desberdintasuna eredu politiko bateratzailearen bidetik konpondu nahi izatea.

*Enpatiare*n nozioak banakako irtenbideak eskaintzen ditu kultur desberdintasun batera ezinak elkarrengana hurbiltzeko. Psikologia sozialetik etorria da eta alderdi historiko, ekonomiko eta politikoa ahaztu egiten ditu, ez ditu aintzat hartzen sozializazioaren ondorio oharkabekoak eta uste du bestearen ikuspuntuan partaide izan nahiak –beste hori giza-banako gisa hartuta erremedia ditzakeela kultura desberdinen aldeko diferentziak.

Pakearen nozioak, senidetasunaren eta maitasunaren nozioez gain, erantzun moral eta erlijiosoak dakartza berekin. Horregatik, erantzun horiek balioko dute balore horiek indarrean dauden gizataldeetan, baina nekez horien mugetatik at. Indar epistemologiko gutxiak dira, beraz, kulturen arteko diferentziak aintzat hartzean ardaztutako heziketan.

Alteritatea kultur arteko erroko desberdintasuna aitortzea da.

Exotismoaren nozioak besteari begirada baikorra egitea azpimarratzen du, baina beste hori urruti dagoen heinean eta espektakulu gisa ikusten dugun neurrian. Diferentzia horrela aitortzeak balio-judizioa batean du oinarri eta behatzailea bere erreferentzi sistemaren ontasunean adoretu besterik ez du egiten. Erlazio horixe da turismo-industriaren alderdirik konformistenen euskarria. Beti egoera berean eta menderatuta daudenek gogo txarrez ikusten dute nola mugitzen den talde txiki baina diruz nagusi den bat.

Nortasunaren mehatxua aipatzen da aldez batera ezinak diren kultur sistemak dituzten gizataldeak leku berean bizi direnean. A priori atzematen da kultura horien harremana desberdintasunezkoa dela. Afirmazio-modu bat da kultura menderatuarentzat; babes-mekanismo bat, eta talde minoritarioa bere bereizgarri kulturalak galtzera eramango luketen egoera eta maileguen aurrean ez fidatzea du oinarri. Diferentziak nabarmentzen eta batera ezin bihurtzen dituen beldurretik sortua da eta gogorkeria sinboliko edo fisikorako bide izaten da.

Diskriminazioaren nozioak haustura konpon ezina ezartzen du kultura desberdineko bi talderen artean; normalean, kulturaren eraginez bakarrik desberdinak diren baina “berez” desberdin balira bezala aurkezten diren iritzietan oinarritzen da: azalaren kolorea, gizarteko ohiturak, hala nola: habitata, higiena, elikadura... Nozio honek izan du bere eredu politiko –apartheid– eta oinarri sendoak eman dizkio Europako mendebaldeko lurraldeen politika kolonialistaren bidez kotasanari mende honen erdira arte. “Jarrera arrazista” esaten denean eredu hori egiten zaio erreferentzia, aipatu gabe.

Kulturen txokea hitzak beren gogoz edo ekonomiak edo politikak behartuta erbesteratzen diren giza-banako edo taldeen moldatu ezina adierazten

du. Unibertsitate-giroan sortu zen termino hori 1950 urteetan eta gizarte jakin batean poliki-poliki txertatzeko igaro behar diren uneen berri ematen du. Eredu positibo eta kronologikoa du oinarri: atzerrian instalatzeak, lehenbizi, eta berriro norberaren sorlekuan ohitzeak, gero, berekin dituen arazo psikologikoak gainditzeari dagokio.

**Kulturartea
integratuko duen
curriculum bat
ezartzeko
printzipioak**

Ondoren aurkeztuko dugun gure jarrerak hiru ezaugarri ditu, jeneralean zabaldua daudenetatik bereizten dutenak:

Lehenbizi, hizkuntza-ikaslea *bitarteko kultural* gisa ikusten dugu (*inter-cultural speaker* ingelesez, *native speaker*-en alderantziz). Mugalari baten antzekoa da, kultur ondasunak eta balore sinbolikoak garraiatzen espezialdutako mugalaria. Kultura bat ezagutzen ez duenari aurkeztu nahi zaionean –batez ere eskolan, jarrera klasikoa izaten da lurralde nazionalaren haritik aurkeztekoa; frontera-kontuak daude hor deskribapenaren erdi-erdian sartuak. Geure proiektu honetan baztertu egin dugu frontieraren irudikapen metaforiko oro, ez dugu alde batera edo bestera igaro daitekeen marrarik aintzat hartzen. Gure ustez, bada gaitasun berezi bat norberaren berezko kulturatik ikasitako kulturara baloreak pasatzekoa, eta alderantziz. Ohar gaitezen norberaren kultura/kultura arrotzaren arteko erlazioa askotan, eskolako ikasketetan, ez-egokitzat eduki ohi dela, ezagunetik hain ezagun ez den zerbaitetara pasatzea esan nahi duelako, edo jatorrizko kultura/kultura arrotza simetrikoki, beraz balore bereko, gisa hartzen direlako.

Ikaslea kultur bitartekari gisa definitzeak honako helburu hauek izan ditzake berekin lotuak:

- Bi gizatalderen arteko harremanetan gatazka-guneak aurkitzen jakitea.
- Elkarrekin konpondu ezinean dabilten jokaera eta iritziak esplikatzen jakitea; gatazkarik denean negoziatzen jakitea edota negoziatzerik ez dagoela onartzea.
- Kultura batean kokatua dagoen solaskidearen aurrean azalpen-sistema baten ontasuna ebaluatzen edo sistema bat moldatzen jakitea.

Hizkuntzen ikaskuntzan *higikortasun geografikoa* da hizkuntza bat duen lurraldearekin aldi bateko erlazioa edukitzea. Berezik da erlazio turistikoaren kontrakoa, hau motza izaten baita eta ikusten den lurraldearekiko harreman estereotipatuak sortzen baititu; horixe zen Europako Kontseiluak Atalase Maila landu zuenean aurrean eduki zuen eredua. Gure planteamenduak kultur diferentziari exigentzia handiagoz heltzea eskatzen du, kontuan hartuz, esaterako: a) gune ezezagun bat laguntzarik gabe ezagutzeak dakartzan nekeak (horixe gertatzen da erlazio turistiko gehienetan); b) ikasleari partaide ez den gizatalde batean integratzeak eskatzen dion denbora; eta c) arazoaldietan hizkuntza bat gutxi gorabehera praktikatzen dela eta horretan huts egiteak zigor sozialak azkar asko ekarriko dizkiola ikasleari.

Adibide gisa, honako hauek dira higikortasun geografikoaren ondorio izango diren helburuetako batzuk:

- Gizatalde arrotzeko kide batekin edo gehiagorekin harremanak moldatzea eta horiei eustea.
- Inguru sozioprofesional bateko partaidearen seinaleak aurkitzen jakitea.
- Leku-denboren eskakizunak elkarri lotzen jakitea (adibidez, nola iritsi jarritako hitzordurako ezagutzen ez den hiri batean).

Orain arte Frantziako hezkuntzan eskoletatik at eduki izan diren gaitasunak proposatzen dira desberdintasun kulturalak sortzen dituen begi-bistako arazoan irtenbide. *Izaten jakin* termino generikoaren azpian zerrendatu ditugu. Izaten jakitea da alteritateari buruz buru jarrera eta pertzepzio etnografikoak baztertzeko gaitasun afektiboa izatea, eta norberaren kulturaren eta kultura arrotzaren arteko erlazioak ezarri eta mantentzeko gaitasun intelektuala. Hemen elkarri lotzen dizkiogun termino afektibo eta kognitiboek, Frantziako testuinguruan bederen, tradizionalki landu gabe egon den zerbait gararazten diote hizkuntz irakasleari, erantzukizun berriak ezarritik: jarrera etnozentrikoak, bestearekiko irekitasunez arduratuko da eta bere egingo ditu kultur diferentziaz ohartzeak norberaren kulturari buruz sortzen dituen gogoetak.

Honako hauek dira, esate baterako, planteamendu hori argitzen duten helburuak:

- Ikaslearen kulturatik datorren dokumentu batean alderdi etnozentrikoak aurkitzen jakitea.
- Testuinguru desberdinetan (diskurtso turistikoa edo kolonizatzailea etab.) gertatzen diren balorazio/ez-balorazioak atzematen jakitea.
- Egoera jakin batean norberaren ikuspuntua eta balore-sistema erlatibizatzen jakitea.

Adibide horiek erraz lot daitezke tolerantziaren kontzeptuaren gainean eraikitako ideologia europarrarekin; baina, ohartzekoa da badagoela aldi berean kultura desberdinen arteko erlazioaren ikuspegi polemikoago bat ere. Proiektu honen oinarrian gizarteari buruzko ikuspegi honako hauek daude: bi gizatalderen arteko harremana beti gatazka sortzaile izan daitekeela; norbait berea ez den gizatalde batean sartzeak badituela bere zailtasunak; bestearen pertzepzioa eraikitzen duten identitate-jokoak; eta bakoitzak igarotako denboraldiaz aparte, aldi baterako erbesteratzeak hainbat aukeraren artean hautatu beharra dakarrela.

Helburu horiek errazago ulertzeko, lau kategoria handitan sailkatu ditugu: izaten jakitea, ikasten jakitea, ezagutzak eta abildadeak. Curriculum baten eraketan, ebaluazio-modu desberdinak daude lau kategoria horien araberrakoak. Bi irizpide hartu ditugu kategoria horiek ebaluazio-mota bati edo besteri doitzeko: helburu batzuek hizkuntza jakin bateko gaitasunarekin dute zerikusia, besteek ez dute inongo hizkuntza jakinekin loturarik. Bestalde, ebaluazioa, zenbaitetan, ikaskuntzaren azkenean jartzen da, horixe da klasikoena; helburu-kategoria batentzako, ebaluazioa ikaskuntzaren hasieran jartzen dugu.

- 1 *Izaten jakitea* kategoriako gaitasunek, gure ustez, ez dute ezein hizkuntza jakinekin loturarik, baina hizkuntza arrotz jakin baten barruan soilik gara daitezke. Mugapen honek irakaskuntza teorikoaren tranpa ekidin nahi du; irakaskuntza horrek, izan ere, ikuspegi unibertsalizantea izango luke, edo bere osaketan kultur ariketa desberdinak izango lituzke geografiaren edo nazioen arabera. Gaitasun horiek, ordea, nahiz eta hizkuntza arrotz jakin baten barruan lortuak diren, beste kultur sistema batera “aldatzeko modukoak” iruditzen zaizkigu. “Aldatzeko modukoak” diogunean, ulertzen da hizkuntza baten lorpenean eskuratutakoa beste baten lorpenean eraldi daitekeela. Hizkuntza bat, beraz, ez da ikasiko era berean ikasleak hizkuntza hori bere lehenengo hizkuntza arrotza duenean eta ez duenean.
- 2 Ikasleak ezagutzen dituen edo ez dituen hizkuntza edo kultura bateko osakin diren esanahi, iritzi eta kultur jokabideak gaurkotzen dituen interpretazio-sistema bat landu eta gauzatzeko gaitasuna da *ikasten jakitea*. Gaitasun hau ez dago hizkuntza arrotz jakin batekin lotua, baina hizkuntza arrotz bat edo gehiago ikastearen emaitza da. Ebaluazioa bukaeran egiten da eta hizkuntza edo kultura ezezagun batera aldatzeko moduko gaitasunak neurtzen ditu. Ebaluazioak, beraz, ezagutzen ez dituen jardun kulturalen aurrean jarri behar du ikaslea eta ikasleari ulermenaren martxan jartzea eskatuko dioten egoerak aurkeztuko dizkio.
- 3 *Ezagutza hitzak*, erreferentzia kulturalen kontzepzio klasikoan, une honetan presente dagoena esan nahi du. Hizkuntza eta kultur ikaskuntzan eskuratutako ezagutza esplizitu eta oharkabekoek, hizkuntza arrotzaren hitzunikiko elkarrekintzan ikaslearen beharrei erantzuten dietenak, eratzten duten erreferentzia sistema gisa definitzen dira. Gaitasun hau hizkuntza jakin bat ikastearen eta testuinguru jakin batean erabiltzearen mendean dago. Hasierako ebaluazioarekin du zerikusia, ikaskuntzako segida hastean egingo da ebaluazio hori, gauza jakina baita ez dagoela kultura bat osatzen duten ezagutza guzti-guztien zerrenda egiterik.
- 4 Bi kulturaren edo gehiagoren arteko harreman-egoeran aurreko hiru gaitasunak integratzen dituzten gaitasunak biltzen dira *egiten jakitearen* baitara. Eskolaz kanpo, kulturarteko beharrei eskolako ezagutzak martxan jarri erantzuteko gaitasuna da hori; ikaslearen eta gizarte jakin bateko kide diren solaskideen kultur nortasunak lotzen dituzten harreman espezifikoko aintzat hartzen ditu. Gaitasun hau, funtsean adimenekoa baita, hizkuntza jakin bat ikastearekin lotuta dago eta ez du balioko zuzenean beste bat ikastekoan erabiltzeko, bi kulturaren arteko erlazio-sisteman baitu oinarria.

Alteritatearekiko sentiberatasunerako printzipioak

Kultur arteko harremanen gatazkari begiratuko diogu hemen batik bat, horien arteko *batera ezintasun* erlatiboa azaltzen baitugu: gizabanakoa bere herrialdeko gizataldean dago sozializatua, eta zalantzak sortzen zaizkio beste kultura baten aurrean jarritakoan. Honako presupostu antropologiko hauen gainean dago egina aukera hori: kultura batek ez du berarekin ukipenean dauden kulturen desberdintasun-printzipioa onartzen desberdintasun hori kultura horretako kideek beren identitateari

buruz duten errepresentazioarekin bat datorrenean izan ezik. Kultura bati buruz duten iritzia, beraz, ez da nahastu behar kultura horretako kideen nortasunaren oinarri den ikuspegiarekin. Bataren eta bestearen ikuspegiak desberdinak dira, eta zenbaitetan elkarren kontrakoak.

“Hiritartasun europarra” esateak beste *dimentsio politiko* bat eranstean die presupostu horiei; honelaxe azal daiteke: Europako hiritarra aurki daiteke bereaz oso bestelako balore-sistemen aurrean, erlijio ez-kristauekin edo mendebaldeko ez diren bizimoduekin harremanetan jartzen denean edo, zinglago, bere betiko erreferentziak (espazio, denbora, hizkuntza, ohitura, erlijioari buruzkoak) kolokan jartzen dizkioten, desberdintasuna arbuiazen duten eta komunikazioa ezinezko bihurtzen duten eguneroko egoera arruntetan. Horrelakoak gerta daitezke Europako mugez kanpo dabilenean, baina baita bera bizi den lurraldean bertan ere. Disfuntzio horiek, azken buruan, mehatxu bat izan daitezke mendebaldeko demokrazia definitzeko, etorkinen taldeak eta Europako eraikuntza ekonomikoan ari den herrialde bateko ez-jatorrizko biztanleak baztertzeko balio baldin badu.

Munduko eskualdeen artean politika eta ekonomia batu nahi diren honetan (Organization for African unity, Europako Batasuna...), eta horrek, begiratu batera, pedagogia bateratua eskatuko luke, guk, *iritzi horren oinarrian dauden interes politiko eta ekonomikoen izenean*, eskatzen dugu, kultura horien arteko erlazioei honako lan-gida hauen bidetik hel dakiela:

- Kulturen arteko erlazioen planteamendua ez dadila *idealista* izan, *pragmatista* baizik, alteritatearen aurrean eguneroko bizitzak eta jardunak bistaratzen dituen erresistentziak aintzat hartuko dituen planteamendua nahi dugu. Guri interes zientifikoak harrarazi digun jarrera horretan sartuta egon beharko lukete sektore ekonomiko eta politikoen interesek ere. Higikortasun geografikotik datozen arazo sozial eta nortasunezkoen aurrean, metodo klasikoek neurri txikia batean bakarrik kontuan hartzen dituzten disfuntzioak leuntzeko irtenbideak aurkitu behar ditu hezkuntzak.
- Bi alderditatik heltzen diegu hemen kulturen arteko erlazioei: *adimen-prozesuaren* aldetik, eta *bakoitzaren bizitza* aintzat hartzetik. Adimen-prozesuaren xedea da alteritate-erlazioari objektu konstruktua eta ez berezko gisa heltzeko tresneria hornitzea, diskurso arrunt eta unean uneko da, bizitza ez den bezalako objektu bat. Dena den, eskolan eta eskolatik kanpo izandako alteritate-bizikizunak egongo dira oinarrian.
- Hezkuntzaren alderdia izango da alteritate-bizikizunaren, sozializazio-prozesu oharkabekoen eta normalean horietatik datozen balio-judizioen eta arbuioen artean *gogoeta eta elkarrizketa-guneak sortzea*. Alteritate-erlazioko fenomenoak era generikoan (hau da, kultura jakin baten eta beste baten arteko harreman berezietatik aparte) izendatu eta deskribatzeko modua emango duten *tresnak eskuratu* beharko ditu. *Gogoetari bide egin* behar dio, kanpotarraren errepresentazioan parte duten sozializazio-moduak eta sailkapen-kategoriak ohartuki eguneratzera gonbidatu.

Proposamen didaktikoak

Hemen lanerako egiten ditugun proposamenek honako hipotesi hauetan dute oinarria:

- Hizkuntza biziak ikasteak, norberaren ama-hizkuntzako sistema ez den beste bat ikastea gisa ulertzen bada, ez dezake berak bakarrik kultur diferentzien arbuioa gainditu: gerratean, etsaiaren edo garailearen hizkuntza ikastea izan daiteke ideologia arrazista bat zabaltzeko modua.
- Ez da zilegi arbuiozko jarrera ikasten edo irakasten den hizkuntza eta kultura arrotz bati buruzko irudikapen ezkorrekin nahastea.
- Horrelako jarreraren oinarriak izan ohi dira: beste kulturei buruzko ezjakintasuna, gizartearen antolaketari buruzko irizpide okerrak, bestea norberaren nortasunarentzako mehatxu gisa ikusten duten irudikapen sozialak.

Planteamendu kontzeptualak alteritatezko harremanak ulertzeko balioko duten hitzen erabilera argitzeko bidea ematen du. Bestearekiko harremanak era generikoan antolatzeke modua emango duen tresneriaren da adibide bat. Glosario gisa honako termino hauek aurkezten dira: arrazismoa, nazioa, exotismoa, aurreiritzia, desberdintasuna. Baina, hiztegi klasikoek ez bezala, termino bakoitza argitzen da hainbat definizioen bitartez; elkarrekin gurutza daitezkeen definizioak dira, baina elkarren kontrakoak ere izan daitezke. Definizio horiek, izan ere, testuinguru historiko, kultural eta diziplinar desberdinetatik daude aterak.

Helburuen haritik lanean aritzeak abildade bereziak, alteritatezko erlazioari dagozkionak aurkitzeko bidea ematen du. Adibidez, alderdi bat hurrengo helburua aurreikusita lantzen da: identitatearen inguruko kontzeptu baten definizioaren aurrekinak bilatzen jakitea. Helburuz helburu lan egiteak alteritatearekiko sentiberatasunaren aldiak deskribatzeko eta progresioa antolatzeke aukera ematen du. Jarraian emango ditugun helburuok ez dira zerrenda mugatu bat, era horretan lan egiteko argibide posible batzuk baizik: jarrera estereotipatu bat, baikorra ala ezkorra aurkitzen jakitea; jarrera irekiak aurkitzea; datu partikular batetik ondorio orokorrak ateratzen jakitea; *kultur arloko gaizki ulertu bat atzematen jakitea; norberak kategoriak sailkatzeke erabiltzen duen sistema ez den bat aurkitzen jakitea.*

Dokumentutan oinarritutako planteamendua da zalantzarik gabe ezaguna. Sozializazio-prozesuen funtzionamendua, oharkabekoa batik bat, eta batez ere eskolakoa, argitzeko modua ematen du. Eskolan dabilzan dokumentuek, hala nola mapak, umeentzako irakurketa-liburuak, eskuliburuak, ereserkiak leku gehiegi dute, jakinaren gainean eta nahita. Bidaletako gidek besteekiko harremanen ikuspegi turistikoa argitzen dute.

.1:

LEHENENGO ARIKETA-EREDUA

HELBURUA: historiaren kontakizunetan ikuspegiaren nozioa baliatzen jakitea.

Aurkezpen orokorreko testuarekin duen erlazioa.

Ariketa honen muinean dagoen dokumentua umeentzako irakurketa-liburu batetik aterea da. Nazioarteko (Frantziaren eta Alemaniaren artekoa batik bat) gatazka baten garaietan sortua da eta garbi azaltzen du nola, sozializazio-prozesuan bestearekiko harremanak nazioarteko egoeraren arabera moldatzen diren. Frantsesek Alemaniako egoeraren karikatura egiten dute. Baina lan hori zeharbidez egiten da, Erromatarrek baitira Frantziarren interesen babesle. Historiaren “ikuspegi horrek” isilpean gordetzen du, nahiz eta esan zezakeen, Erromatarrek Frantzian indarraren bidez sartu zirela hango biztanle Galiarrak borrokatuta. Badira “inbaditzaile onak”, hemen eraikitzaile gisa aurkezten direnak eta “txarrak”, hemen barbaro gisa azaltzen direnak.

Irakaslearentzako oharra:

Ikasleei eskatuko zaie lanak alde zureko entrenamendua behar du.

Irakaslearentzako testua:

“Julio Kaisaren gudaroste garailea Alsaziako iparraldera joan zen, eta hantxe eraiki zuen negua igarotzeko lur-eremu itxi bat. Horrelaxe sortu zen Saverne hiria. Gero, lurralde hura etengabe gertatzen ziren erasoetatik babesteko, lerro gotor bat ezarri zuten, elkarren artean komunikatu ahal izateko bezain hurbil zeuden lezoi, dorre eta abar eginez. Barbaro-multzo batek Rin ibaia isilpean igaro nahi zuenero, deia egiten zen eta erromatarren gudariek, leku hartan bilduta, eta arriskuan zeudenek gogor egiten zieten inbaditzaileei Rinen. Leku itxi haien inguruan eraso haietatik babestuta egoten baitziren, nekazariak hantxe egiten zituzten beren etxeak eta beren ukuiluak, eta horrelaxe sortu ziren Alsaziako herrixka eta herri asko”.

1 Izen propioen hiztegi bat eta Alemaniaren eta Frantziaren arteko mugen mapa eskuratu.

– Alderdi baikorrak eta ezkorak adierazten dituzten terminoak aurkitu:

Baikorrak. Gudaroste garailea, erasoetatik babestuta egon, Alsaziako herrixka eta herri asko sortu ziren.

Ezkorak. Etengabeko erasoak, barbaro-taldeak.

– Testuan zein naziori erreferentzia egiten zaie aurkitu:

Erromatarrek (Julio Kaisar)

Frantzia (Saverne, Alsazia, Strasbourg)

Alemania (hiri alemana, Germanoak)

– Zein herrialderi lotuta daude termino baikorrak eta ezkorak?

Erromatarrek: gudaroste garailea, arriskuetatik babestuta egon, Alsaziako herri eta herrixka asko sortu ziren.

Germanoak: etengabeko erasoak, barbaro-multzoak, inbaditzaileak.

– Zein da gauzak horrela adierazita azaltzen ez den herrialdea?

2 Dokumentu horren testuingurua aurkitzeko, hona beste aztarna batzuk eta kontakizunaren bukaera:

“Strasbourg da hiri horietako bat. Ondo gogoan hartu hori! Etorriko baitira gero esanez Strasbourg hiri alemana dela; barremurri egin ahal izango duzue eta gogoratu zarete hiri hori, hain zuzen, germanoei gogor egiteko sortu zutela” (Alsaziako historia Osaba Hansi-k ume txiki-
kiei kontatua, 1916).

Oso kontuan hartu dokumentu honen data eta garai hartako nazioarte-ko egoera; pentsa zein lurraldetan zabalduko zen umeentzako liburu hori.

3 Erromatarrek egondako lurralde bateko eskolan erabiltzeko gaia:

– Zergatik aurkezten dira Erromatarrek on gisa, inbaditzaile gisa ere aurkez zitezkeenean?

Beste lurralde batzuetarako gaia:

– Zein da zuen haurtzaroan txar gisa azaldu zizueten herrialdea? Zein dira gogoan dauzkazuen liburuak edo historiak? Badituzue oraindik ere gogoan gordetako irudiak?

Beste ariketa-eredu bat

Helburua: kanpotarrekiko harremanei eite ezkorra ematen dieten jokabi-
de arruntak aurkitzea.

Aurkezpen-testu orokorrarekiko lotura

Publizitateak eta umorezko marrazkiek garrantzia kentzen diete erbeste-
arekiko harreman gatazkatsuei. Badira hemen bi adibide. Kontua ez da
inolako jazarpenik gabeko gizarte aingerutar baten atzetik ibiltzea.
Aitzitik, ikusten jakitea eguneroko jokabideek etsaia erakusten dutela
inplizituki (Irak ez da aitatu ere egiten) eta herrialde bat edo eskualde bat
konnotazio txarrak dituen leku bihurtzen dela bat-batean, joera politiko
eta ekonomikoen kariaz.

Irakaslearentzako oharrak:

Dokumentu hauen testuingurua nazioarteko gatazka politiko jakin bat
da: Iraken eta Kuwaiten arteko Golkoko Gerra, hainbat naziotako guda-
rosteak inplikatu zituen. Indar handia du alderdi geopolitikoak, ameri-
karren presentziak (Schwarzkopf jenerala “basamortuko ekaitza”
ekitaldian parte hartu zuten gudari amerikarren buru), Frantziako gerra-
-industria (Aérospatiale), Alemaniaren iragan espantsionista (Hinden-
burg mariskala izan zen lehen mundu-gerratean, Lunderdorf-eko kostan
gudari alemanen buru; Kohl kantzilerra Reagan Presidente amerikarrari
telefonoz deika). Bi dokumentuak sentimendu baten haritik dabilta: bi
naziok eraso militarrek egiteko duten abildadeen harrokeriaren inguruan,
alegia.

Ariketa

1 Aurkitu dokumentu hauen datak:

Zein dira bi dokumentu horietan inplikaturako lurraldeak?

Zein herrialdetan azaldu ziren?

Zein da dokumentu horien izaera?

2 Zure herrialdeko mediatan, zein dira gaur egun ezaugarri ezkorrez merkatuta dauden lurraldeak?

Testuinguru horretan, zein da zure lurraldea nagusi dela azaltzeko jokabidea?

Nola ikusten dituzu zuk zure eskualdean bizi diren herrialde horretakoak?

Zeren bitartez (media, familia, eskola, lagunak, lantegia...) iritsi zara iritzi horretara?

Zeure bizitzan aurki ahal zenezake elementurik gai honetan zeure iritzia eman beharra ekarri dizunik?

Itzultzailea: Boni Urkizu

Oharrak

- 1 Byram M., Zarate, G., Definitions, objectives and evaluation of social-cultural competence. Strasbourg: Council of Europe, January 1994. (CC-LANG (94) 1). Council for cultural co-operation. Education Committee. Language Learning for European Citizenship. Byram M., Zarate G., Leus jeunes confrontés à la différence. Des pro-

positions de formation. Strasbourg: Council of Europe, janvier 1994. Document intermédiaire. Coste D., Moore., Zarate G. Compétence pluriculturelle, compétence plurilingue. Strasbourg: Conseil de l'Europe, mars 1995.

- 2 Lévi-Strauss C. Race et histoire in: Anthropologie Structurale 2. Paris: Plon, 1973. P. 383

